



kritiken hemeroteka

6.922 kritika

Honi buruz

Bilaketa

Hasiera

Azken kritikak

- **Horma**
Anjel Lertxundi
Jose Luis Padron
- **Bihotz handiegia**
Eider Rodriguez
Amaia Alvarez Uri
- **Gu orduko hauek**
Garazi Arrula Ruiz
Estibalitz Ezkerra
- **Honetara ezker**
Arantxa Iturbe
Javier Rojo
- **Horma**
Anjel Lertxundi
Iratxe Retolaza
- **Honetara ezker**
Arantxa Iturbe
Peru Iparragirre
- **Elurra ikusi dut**
Xabier Lete
Igor Estankona
- **Biennale**
Beatriz Chivite
Javier Rojo
- **Elurra ikusi dut**
Xabier Lete
Mikel Asurmendi
- **Barbaroak baratzean**
Luis Garde
Igor Estankona
- **Ametsondoa**

« [Polderrak eta almitza](#) | [Pertsonaia hausnarketan](#) »

Frankenstein / **Mary Shelley** (*Iñigo Errasti Aranbarri*) / Erein / Igela, 2016

Amaren heriotzak sortutako minetik → Gotzon Barandiaran / *111 aldizkaria*, 2017-08

Niri ere Boris Karloff zetorkidan gogora Frankenstein berbagai hartzen genuen bakoitzean. Neu ere sinetsita nengoen Frankenstein munstroaren izena zela. Momia, gizon-otsoa edota Drakularen kuadrilakoa zen guretzat Frankenstein, beldurgarrietasan beldurgarrietasakoa. Eta hori guztia gezurrezkoa da.

Boris Karloffek antzestu zuen Frankensteinen irudia dugu gehienok akorduan, nahiz eta, ausarki botako dut, pelikula hura ere, James Whalesk 1931n sortutakoa, gutxi ikusi. Baina nork ez du Frankenstein ezagutzen? Itzela da gero, ez pelikula bakar batek, ez inoizko telesailak ere, ez duela liburua hasi eta amaitu, errespetatu. Pantailetan ikusteko sorkari guzti-guztiek Mary Shelleyk idatzitako istorioaren bertsioak egin dituzte, gehienek, gainera, liburuan ez daudenak kontatzeko. Mary Shelleyren liburuan, benetako munstroa, jainko izatea amesten duen gizona baita. Gizona diot, generoa ozen azpimarratuz, Mary Shelleyk azpimarratu zuen eran. Mary, bera munduratu eta hamaika egunera hil zelarik, amaren huts hori aldean bizi izan baitzen, are gehiago aitak erdi abandonatu zuelako. Amaren heriotzak eragindako min jasanezinak itsutu baitzuen Victor Frankenstein zientzialaria gaixotasunak hilko zituen izaki ustez perfektua sortu eta ondoren, arbuiztera. Ez baitzuen alferrik *Frankenstein edo Prometeo moderno* izenburutu. Prometeo, jainkoei aurre eginez jainko izatera jolastu zen titana, ezinezkoa posible dela frogatu nahi duen burugabea. Prometeo mixerablea, Joxe Azurmendiren poeman. Hemezortzi urterekin asmatu zuen Mary Shelleyk Victor Frankenstein, jainko izatera ausartu eta bizi daitekeenik eta oinaze alimalekoenak pairatu zituen zientzialariaren istorioa, berak hautatu ez eta bazterketa krudelenaren ondorioz bakardadera kondenatutako munstroaren tragedia. Gizonak, fedearen aitzakiapean zurrin gobernatzen zuen XIX. mendean, guraso filosofo erradikal eta feministak izan zituen Mary Shelleyk, etika eta zientzia, betiereko bizitzaren ameskeria, gaizkia eta ongia, amatasuna eta aitatasuna, mendeku gose aseezina hartu zituen kontagai. Horixe da beldurgarriena nobelan, ez Victor Frankensteinek sortzen duen munstroa, gerora mito bihurtu eta bere egilearen izena hartuko zuena, zinezko mendeku literarioa gauzatzuz, bide batez

Artxiboa

- Urtarrila 2018
- Abendua 2017
- Azaroa 2017
- Urria 2017
- Iraila 2017
- Abuztua 2017
- Uztaila 2017
- Ekaina 2017
- Maiatza 2017
- Apirila 2017
- Martxoa 2017
- Otsaila 2017

Aurreko urteak ▼

Hedabideak

- Berria (900)
- Argia (884)
- El Diario Vasco (830)
- El Correo (751)
- Gara (576)
- Egunkaria (505)
- Deia (379)

Peru Magdalena
Joannes Jauregi

→ **Xala**
Cynthia Ozick
Aiora Sampedro

→ **Baina ez lukete han egon behar**
Asier Osinalde
Iratxe Esparza

→ **Elurra ikusi dut**
Xabier Lete
Miren Lizarralde

RSS 2.0

esanda.

Istoria kontatzeko, formalki, euskarazko literaturan sano urria den genero epistolarra edo gutun bidezkoa erabili zuen Shelleyk hasiera eta bukaeran baina tramaren erdian, Victor Frankenstein eta berak sortutako munstroak lehen pertsonan egindako aitortza daude, gure uste harroan, Mary Shelley hemezortzi urtekoaren idazle eskua, kontalari iaioaren literatura erakusten duena. Hasiera hasieratik, misterioa gailentzen da kontakizunean, gertakariei zein pertsonaiei buruz gehiago jakiteko grina liburuaren amaieraraino iraunaraztea lortzen du idazleak, Victor Frankensteinek pertsona ezberdinen gorputz txatal ederrenekin osatutako gorpuari bizia emateko helburu itsuarekin bat egin du irakurleak, gaixotzerainoko itsukeria sortzen dion hori bere egiten du irakurleak, munstroaren tragediarekiko enpatiko bihurtzen baikaitu, Shelleyk proposatzen dituen galderak izua sortzeko modukoak baitira. V. Frankensteinek bere sormena, bere asmakizuna, bere ametsa bitan abandonatzen du, koldarra da, ez du bere aitatasuna onartzen, ez du seme hori nahi, gizartearen marginalitatera kondenatzen du, arbuio absolutura. Hau ez da eguraldi txarreko uda batez denborapasako, beldur apur bat eragiteko saiakera. Tragedia neurribakoa da eta hori gutxi ez eta, atenporala.

Eta euskaldunok zorionekoak gara hau bezalako liburuak, hau bezalako liburuak itzultzeko gaitasun itzela duten itzultzaileei esker, lehen-lehenik, aurrez espainolez edota frantsesez irakurri behar izan barik, euskaraz irakurri ditzakegulako. Eta ez edonolakoan. Iñigo Errasti Aranbarriren itzulpena txapela kentzeko modukoa iruditu zaigu, XIX. mendeko ingelesez sortutako lana dela ahantzarazten digu, kontraerarekin berarekin, mamiarekin ez eze, gozarazten. Mitoa desmitifikatzeko.

→ El País (151)

→ Aizu! (151)

→ Irunero (122)

→ Zeruko Argia (97)

→ Egin (77)

→ Hegats (62)

→ Besterik (1436)